

**NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA****Zk-2350**

42/2004 DEKRETUA, martxoaren 2koa; honen bidez, behien entzefalopatia espongiformea (BSE) antzema-teko test azkarra egindakoan positibo eman duen ka-nalaren hilketa-kate bereko aurre-aurreko kanala, ondorengo biak eta hortik datozen azpi-produktuak galtzearren emango diren kalte-ordainak ezartzen di-ra.

Europako Parlamentuak eta Kontseilu Europarrak 2001eko maiatzaren 22an emandako Araudian (EK-999/2001 zk.) ezarri ziren entzefalopatia espongiforme kutsagarri batzuk prebenitzeko, kontrolatzeko eta de-sagerrarazteko xedapenak, eta, geroago, Kontseiluak 2003ko ekainaren 27an emandako Araudia (EK-1139/2003 zk.) oinarri hartuta, honako hau erabaki zen III. eranskinean, I. 6.5 kapituluan: gizakiak kontsumi-tzekoa den animalia hildakoan, egiten zaizkion probe-tan positibo ematen duela ikusten bada, suntsitu egin-go da positibo emandako kanal hori, eta, horrekin ba-tera, hilketa-kate berean, gutxienez, aurre-aurreko ka-nala eta ondorengo biak ere bai.

Betekizun hori Europako Batzordeak ekainaren 22an emandako Araudian (EK-1248/2001 zk.) sartu zuen, eta, era horretara, zati batean aldatu zuen gora-go aipatutako EK-999/2001 Araudia. Ondoren, bete-kizuna jasota geratu zen azaroaren 27ko 329/2001 Dek-retuko 27. artikulua zezpigarren idatz-zatian, horren bidez ezarri baitziren haragitarako azienden entzefalo-patia espongiforme kutsagarriak prebenitzeko, zaintze-ko eta kontrolatzeko neurriak (gerora, urriaren 21eko 257/2003 Dekretuaz aldatu zen). Dena dela, esan be-har da, Dekretu horren arabera, Osasun Sailak atzera bo-ta lezakeela aipatutako behi-kanalak suntsitu beharra, baldin eta hiltegiak egiaztatzen badu kanalen arteko kutsadura saihesteko sistemaren bat baduela, baina, de-na dela, ohitura legez, aurre-aurreko kanala eta ondo-rengo biak ere suntsitu egiten dira, elkarren artean ku-tsatzeko inolako arriskurik egon ez dadin.

Halaber, EK-999/2001 Araudiaren 13.4 artikuluan ezartzen denez, jabeei, abereak hil behar izan badituz-te, edo animalia horiengandik etorritako produktuak suntsitu behar izan badituzte, kalte-ordaina ordaindu behar zaie berandutzarik gabe, halaxe ezarrita baitago 12. artikuluko 2. paragrafoan eta artikuluko honetako 1. paragrafoko a) eta c) idatz-zatietan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, probetan positibo eman duten kanalak suntsitzearren, kalte-ordainak ematen dira foru-aldundien bitartez, lurralde histori-koei baitagokie animalien ekoizpen- eta osasun-arloak garatzea eta burutzea. Ez da, ordea, gauza bera gerta-tzen hilketa-kate bereko aurre-aurreko kanalarekin eta ondorengo biekine; aipatutako horiek ez dira suntsitzen

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA
Y PESCA****Nº-2350**

DECRETO 42/2004, de 2 de marzo, por el que se es-tablece una indemnización por la canal inmediata-mente anterior y las dos inmediatamente posterio-res a la que dé positivo al test rápido de Encefalopa-tía Espongiforme Bovina (EEB) en la misma cadena de sacrificio, así como por sus subproductos.

El Reglamento (CE) N.º 999/2001 del Parlamento Europeo y del Consejo de 22 de mayo de 2001, por el que se establecen disposiciones para la prevención, el control y la erradicación de determinadas encefalopa-tías espongiformes transmisibles, en su redacción dada por el Reglamento (CE) N.º 1139/2003 de la Comisión de 27 de junio de 2003 (Anexo III, capítulo A, I. 6.5), establece que en los casos en los que las pruebas den positivo en animales sacrificados para el consumo hu-mano, por lo menos la canal inmediatamente anterior a la que haya dado positivo y las dos canales inmedia-tamente posteriores a ésta en la misma cadena de sacri-ficio serán destruidas, además de la propia canal que ha-ya dado positivo.

Dicha obligación fue introducida por el Reglamen-to (CE) N.º 1248/2001 de la Comisión, de 22 de junio, que modificaba parcialmente el Reglamento (CE) N.º 999/2001 anteriormente citado, y recogida en el apar-tado séptimo del artículo 27 del Decreto 329/2001, de 27 de noviembre, de medidas de prevención vigilancia y control de las encefalopatías espongiformes transmi-sibles de los animales de abasto, modificado por el De-creto 257/2003, de 21 de octubre. Debe indicarse, no obstante, que, si bien se prevé en dicho Decreto la po-sibilidad de que el Departamento de Sanidad revoque la destrucción de las canales mencionadas cuando los mataderos demuestren tener un sistema de prevención de contaminación entre canales, sistemáticamente sue-le procederse a la destrucción de las mismas para eli-minar cualquier posibilidad de contaminación.

Asimismo, el Reglamento (CE) N.º 999/2001, esta-blece, en su artículo 13.4, que los propietarios deben ser compensados sin demora por la pérdida de los ani-males a los que se haya tenido que dar muerte o de los productos de origen animal destruidos conforme al apartado 2 del artículo 12 y a las letras a) y c) del apar-tado 1 del presente artículo.

Sin embargo, si bien las canales que dan positivo se vienen indemnizando en la Comunidad Autónoma del País Vasco a través de las Diputaciones Forales, por co-rresponder a los Territorios Históricos el desarrollo y ejecución en materia de producción y sanidad animal, no sucede lo mismo con la canal inmediatamente ante-rior y las dos posteriores en la cadena de sacrificio, de-

aberea gaixo dagoelako, kutsatzeko egon litekeen arrisku oro ezabatzeko baizik, ezin da eta erabat baztertu kanal horiek eta beren azpi-produktuak ere kutsatuta ez daudenik, esan dugunez, animalia horiek hilketa-kate berean hil dituzte-eta entzefalopatia espongiformea (BSE) antzemateko test azkarra eginda positibo eman duen aberearekin batera.

Ildo horretatik, beharrezko ikusten da kanal horien galera arintzeko kalte-ordainak ezartzea, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan diru-atal bat zuzenduta.

Dekretu hau osatzerakoan, aholkua eskatu zaie bai foru-aldundiei, bai nekazaritza-arloko erakunde profesionalei, baita sektore horietako elkartei ere.

Beraz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak halaxe proposatuta, eta Jaurilaritzaren Kontseiluak 2004ko martxoaren 2an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoan, gizakiak kontsumitzekoa den animalia hildakoan (betiere, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta baimen egokia duten hiltegietan hildako animaliez ari garelarik), entzefalopatia espongiformea (BSE) antzemateko test azkarra eginda positibo eman duen abereaz gainera suntsitu beharreko kanalak (alegia, hilketa-kate bereko aurre-aurretik joan den kanala eta ondoren datozen hurrengo biak) eta hortik eratorriko produktuak suntsitu eta galtzearren, abere horien jabeek kalte-ordainak emateko modua arautzea, horixe da dekretu honen xedea.

2.— Aipatutako kanal horiek eta horietatik eratorritako produktuak suntsitu behar direla ezarrita dago, batetik, azaroaren 27ko 329/2001 Dekretuko 27. artikularen zazpigarren idatz-zatian, horren bidez ezarri baitziren haragitarako azienden entzefalopatia espongiforme kutsagarriak prebenitzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko neurriak (gerora, urriaren 21eko 257/2003 Dekretuaz aldatu zen), eta, bestetik, Europako Parlamentuak eta Kontseilu Europarrak 2001eko maiatzaren 22an emandako EK-999/2001 Araudiaren III. eranskineko A kapituluko I. ataleko 6.5 puntuan, hor ezarri ziren-eta entzefalopatia espongiforme kutsagarri batzuk prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko xedapenak.

2. artikulua.— Onuradunak eta betekizunak.

Dekretu honetan ezarritako laguntzak jaso litzakete, entzefalopatia espongiformea (BSE) antzemateko test azkarra eginda, positibo eman duen kanalaren aurre-aurretik joan den kanalaren eta/edo ondoren datozen hurrengo bien jabeek, betiere, honako betekizun hauek beteta:

bido a que éstas no se destruyen por motivos de sanidad animal sino para evitar toda posibilidad de contaminación, ya que no se puede descartar la contaminación de dichas canales y subproductos animales en la medida en que los animales de los que proceden han sido sacrificados, en la misma cadena de sacrificio, junto a un animal que ha dado positivo a la EEB en las pruebas de diagnóstico rápido.

En este sentido, se considera necesario establecer una indemnización compensatoria para dichas canales, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Las Diputaciones Forales así como las organizaciones profesionales agrarias y las asociaciones sectoriales han sido consultadas en la elaboración del presente Decreto.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 2 de marzo de 2004,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

1.— El objeto del presente Decreto es regular en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco la concesión de una indemnización para compensar la pérdida sufrida por los propietarios de la canal inmediatamente anterior y las dos canales inmediatamente posteriores en la cadena de sacrificio a la que dé positivo en las pruebas de diagnóstico rápido de EEB realizadas en animales sacrificados para el consumo humano con motivo de su destrucción, así como de la de sus subproductos, siempre y cuando hayan sido sacrificados en mataderos autorizados ubicados en la C.A.P.V.

2.— La necesaria destrucción de dichas canales, así como la de sus subproductos, se deriva de lo dispuesto en el apartado séptimo del artículo 27 del Decreto 329/2001, de 27 de noviembre, de medidas de prevención, vigilancia y control de las encefalopatías espongiformes transmisibles de los animales de abasto, modificado por el Decreto 257/2003, de 21 de octubre, y en el punto 6.5 del apartado I del capítulo A del Anexo III del Reglamento (CE) N.º 999/2001 del Parlamento Europeo y del Consejo de 22 de mayo de 2001, por el que se establecen disposiciones para la prevención, el control y la erradicación de determinadas encefalopatías espongiformes transmisibles.

Artículo 2.— Beneficiarios y requisitos.

Podrán beneficiarse de las ayudas previstas en este Decreto los propietarios de la canal inmediatamente anterior y/o de alguna de las dos canales inmediatamente posteriores a la que ha dado positivo en las pruebas de diagnóstico rápido de EEB que reúnan los siguientes requisitos:

a) Nekazaritza-ustategiak direnean, Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar dute kokatuta, eta, gainera, foru-aldundiek kudeatzen duten nekazaritza-ustategien erregistroan ere egon behar dute behar bezala inskribatuta, bakoitzak dagokion erregistroan.

b) Nekazaritza-industriak direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien industrien erregistroan egon beharko dute alta emanda.

c) Betiere, abereak Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategi batekoa izan behar du, eta ustategiak EAEko nekazaritza-ustategien erregistroan egon behar du behar bezala inskribatuta.

3. artikulua.— Finantzaketa eta laguntzen zenbatekoa.

1.— Diru-laguntza hauek emateko erabiliko diren diru-baliabideak beren aurrekontu-kreditutik etorriko dira, berariaz horretarakoxe baitago ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan. Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean guztira emango den diru-kopurua ez da inoiz izango ez goiko diru-atal hori baino handiagoa, ez eta, aurrekontu-atalen artean dauden loturak erabilita, edo aurrekontuan aldaketak onartuta, legearen arabera jatorrizko diru-saila eguneratuz sor litekeen kopurua baino handiagoa ere. Aurrekontua aldatzekotan, horren berri eman beharko du Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian horretarako ebazpena emanda.

2.— Urtero, ekitaldiko lehen hiru hilabeteen barruan, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak Agindua emango du, eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta, neurri hori betetzen erabiliko den kopuru osoaz gainera, aplikatu beharreko baremoa ere ezarriko du, dagokion ekitaldian ematekoak diren kalte-ordainetan bakoitzari dagokion diru-kopurua kalkulatzeko, betiere, Lehen, Bigarren, Hirugarren eta Laugarren Xedapen Iragankorretan 2004. eta 2003. ekitaldietarako ezarritakoaren aurka joan gabe.

3.— Kalte-ordainak emateko baremoan, kanala bera ordaintzeaz gain, honako hauek ere sartuko dira: abere-hilketa, kanalak eta bere azpi-produktuak dagokion lekura eramateko eta suntsitzeko gastuak eta konfiskatutako larruaren balioa.

4.— Kanala baimendutako transformazio-industria batera eraman behar denean (gero han suntsitu dezaitez), edo suntsipen-industria batera eraman behar denean, kanala konfiskatu eta tindatzen den une horretan indarrean dagoen baremoa, horixe izango da kalte-ordaina kalkulatzeko erabiliko dena, eskaera noiz aurkeztu den alde batera utzita.

4. artikulua.— Bateragarritasuna eta kalte-ordainak.

1.— Dekretu honen bitartez emango diren kalte-ordainak itzuli beharrik ez duten diru-laguntzak izango dira.

a) En el caso de los titulares de explotaciones agrarias, que dicha explotación agraria se encuentre ubicada en la Comunidad Autónoma de Euskadi y debidamente inscrita en el correspondiente Registro de Explotaciones Agrarias gestionado por las Diputaciones Forales.

b) En el caso de industrias agrarias, que dicha industria esté dada de alta en el Registro de Industrias Agroalimentarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) En todo caso, que el animal proceda de una explotación agraria ubicada en la Comunidad Autónoma del País Vasco y debidamente inscrita en el Registro de Explotaciones Agrarias de la C.A.P.V.

Artículo 3.— Financiación e Importe de las ayudas.

1.— Los recursos económicos destinados a estas ayudas procederán del correspondiente crédito presupuestario establecido al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en función de la vinculación presupuestaria existente o de la aprobación de modificaciones presupuestarias, de conformidad con la legislación vigente. De dicha modificación presupuestaria se dará publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural.

2.— Anualmente, en el primer trimestre del ejercicio y mediante Orden del Consejero/a de Agricultura y Pesca que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, se establecerá el importe total destinado a esta medida, así como el baremo a aplicar para el cálculo individualizado del importe de las indemnizaciones a conceder durante el correspondiente ejercicio, sin perjuicio de lo que, para el ejercicio 2004 y 2003, se prevé en las Disposiciones Transitorias Primera, Segunda, Tercera y Cuarta.

3.— El baremo de indemnización incluirá, además de la canal, los gastos correspondientes al sacrificio, traslado y destrucción de las canales y sus subproductos, así como el valor de la piel decomisada.

4.— Con independencia del momento en que se presente la solicitud de indemnización, el baremo a aplicar para el cálculo de la misma será el vigente en el momento de producirse el decomiso y tintado de la canal con el objeto de enviarla a una industria de transformación autorizada, para su posterior destrucción, o a una industria de eliminación autorizada.

Artículo 4.— Naturaleza de la indemnización y compatibilidad.

1.— Las indemnizaciones que se concedan en virtud del presente Decreto tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

2.– Dekretu honetan ezarritako kalte-ordainak ez dira bateragarri izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu berbererako jaso litekeen diru-laguntza, baliabide, diru-sarrera edo beste edozein eratako laguntzekin.

5. artikulua.– Eskaerak.

1.– Kalte-ordaina jasotzeko eskaerak dekretu honen I. eranskinak dakarren ereduari jarraituz bete behar dira, eta Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariari zuzenduta, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzan aurkeztu behar dira. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan eta han ezarritako eran ere aurkez daitezke, lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak aldatu zuela aintzat hartuta.

2.– Eskabidea hiru hilabeteko epean aurkeztu behar da, kanala baimendutako transformazio-industria batera eramateko (gero han suntsitu dezaten), edo suntsipen-industria batera eramateko, kanala konfiskatu eta tindatzen den une horretatik hasita. Adierazitako hori horrela izanda ere, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera eta dekretu hau argitaratu arte konfiskatu diren kanalen jabeen zuzenduta, dekretu honen Hirugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoa errespetatu behar da.

3.– Dekretu honen I. eranskinak dakarren eskaera-inprimakiarekin batera, honako dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

a) Eskaera-egilearen NANaren fotokopia, edo, hala badagokio, IFKarena.

b) Legezko ordezkaria bada, NANaren fotokopia eta legezko ordezkaria dela frogatzeko dokumentazioa.

c) Eskaera-egilea nekazaritza-industria bat bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagai Industrien Erregistroan alta emanda dagoela frogatzeko egiaztagiria.

d) Behi-azienda identifikatzeko agiriaren fotokopia, kalte-ordaina eskatzeko zio diren animaliei dagokiena, eta lurraldean lurraldeko foru-aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak emana.

e) Kanala erabat konfiskatu dela egiaztatzeko ziurtagiria, Osasun Publikoko Albaitaritza Zerbitzuak emana; hor adierazi behar da kanala tindatu dela, eta baimendutako transformazio-industria batera (gero han suntsitu dezaten), edo baimendutako suntsipen-industria batera eraman dela.

f) Konfiskatutako abereari jatorriz dagokion ustategia Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustategien Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzeko txartelaren fotokopia.

2.– La indemnización establecida en el presente Decreto será incompatible con la percepción de cualquier otro tipo de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos que pudieran concederse con la misma finalidad por cualesquiera Administraciones o entes tanto públicos como privados.

Artículo 5.– Solicitudes.

1.– Las solicitudes de indemnización, según el modelo que figura como Anexo I al presente Decreto, irán dirigidas al Director/a de Agricultura y Ganadería y podrán presentarse ante la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, así como en los demás lugares y en las formas previstas en el artículo 38.4.º de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

2.– La solicitud deberá presentarse en el plazo de tres meses desde la fecha en que se haya practicado el decomiso y tintado de la canal con el objeto de enviarla a una industria de transformación autorizada, para su posterior destrucción, o a una industria de eliminación autorizada. Todo ello se entiende sin perjuicio de lo que se establece en la Disposición Transitoria Tercera para los propietarios de las canales decomisadas desde el 1 de enero de 2003 hasta la fecha de publicación del presente Decreto.

3.– Deberá presentarse, junto con el impreso de solicitud que figura en el Anexo I, la siguiente documentación:

a) Fotocopia del D.N.I. o C.I.F., en su caso, del solicitante.

b) En su caso, fotocopia del D.N.I. y de la documentación acreditativa de la condición de representante legal.

c) Certificado acreditativo de estar dado de alta en el Registro de Industrias Agroalimentarias de la C.A.P.V., cuando el solicitante sea una industria agraria.

d) Fotocopia del Documento de Identificación Bovino emitido por el Servicio de Ganadería de la Diputación Foral correspondiente, relativo a los animales por los que se solicita indemnización.

e) Certificado de decomiso total de la canal expedido por el Servicio Veterinario de Salud Pública, acreditativo del tintado de la canal y de su posterior transporte a una industria de transformación autorizada, para su posterior destrucción, o a una industria de eliminación autorizada.

f) Fotocopia de la tarjeta acreditativa de la inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de la C.A.P.V. relativa a la explotación de procedencia del animal.

g) Hiltegian emandako ziurtagiria, ondorengo datu hauek guztiak bertan jasota daudela:

- Aberearen belarritakoaren zenbakia.
- Arraza.
- Espeziea.
- Sexua.
- Kanalaren pisua, egurastu ondoren.
- Kanalaren sailkapena.
- Entzefalopatia espongiformea (BSE) antzemateko test azkarra eginda positibo eman duen aberearen hilketa-zenbakia, baita kalte-ordaina eskatzeko arrazoi den animaliarena edo animaliena ere.
- Abeltzainaren eta abereak hiltegia eramateko arduradunaren izena, helbidea eta NAN/IFZ.

h) Hirugarrenaren Kodean alta emanda dagoela erakusteko inprimaki ofiziala, dekretu honen II. eranskinean dagoen eredu normalizatuaren arabera.

i) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta eta eguneratuta dituela egiaztatzeko ziurtagiria.

4.– Aurkeztutako eskaeran akats, hutsune edo okerrren bat dagoela ikusiz gero, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eskaera egin duenari jakinaraziko dio horren berri, eta hamar eguneko epea emango dio zuzendu beharrekoa zuzen dezan. Epe hori igarota, egin beharreko zuzenketak egin ez badira, eskabidea bertan behera geratu dela adierazteko ebazpena emango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluan ezarritako arauei jarraituz (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

5.– Aurrekoez gainera, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak bere iritziz beharrezko den informazio eta dokumentazio osagarri guztia eska dezake.

6. artikulua.– Kudeaketa.

1.– Dekretu honetan araututako diru-laguntzak kudeatzeko organo eskuduna Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza izango da.

2.– Eskaera egin duten guztiei emango zaie kalte-ordaina, eskabideak zein ordenatan aurkeztu diren, hurrenkera horretan, betiere, dekretu honetan ezarritakoa eta dekretua garatzeko eta betetzeko arauetan xedutakoa betetzen badute. Hemen aipatutako xede hori betetzera zuzendutako funtsak bukatzen badira, ekitaldi horretan etenda geratuko da kalte-ordainak emateko bide hori. Horrelakorik gertatzekotan, horren berri eman beharko du Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburordeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian horretarako ebazpena emanda.

3.– Dekretu honetan ezarritako baldintzak bete arren, kalte-ordaina jaso gabe geratu, eta, horretara zuzendutako aurrekontu-saila amaitu delako, ezetsi egin behar izan diren eskaerak, hurrengo ekitaldirako geratuko dira; hurrengo ekitaldi horretan, beraz, erantzun go zaie eta lehentasuna izango dute gainera, ekitaldi horretan aurkeztutako gainerako eskaeren aurretik; hori bai, kalte-ordaina jasotzeko beste eskaera bat aurkeztu

g) Certificado emitido por el matadero en el que se recojan los datos que se especifican a continuación:

- Número de crotal del animal.
- Raza.
- Especie.
- Sexo.
- Peso de la canal tras el oreo.
- Clasificación de la canal.
- Número de sacrificio del animal que dio positivo en el diagnóstico rápido de EEB así como de aquél o aquellos por los que se solicita indemnización.

– Nombre, dirección y D.N.I./N.I.F. del ganadero y del entrador.

h) Impreso Oficial de alta en el Código de Tercero conforme al modelo normalizado que figura en el Anexo II al presente Decreto.

i) Certificación de encontrarse al corriente de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

4.– Si la Dirección de Agricultura y Ganadería advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto, carencia o inexactitud, lo comunicará al solicitante, concediéndose un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Régimen Administrativo Común.

5.– En cualquier caso, la Dirección de Agricultura y Ganadería podrá solicitar cuanta información y documentación complementaria estime necesaria.

Artículo 6.– Gestión.

1.– El órgano competente para la gestión de las ayudas reguladas en el presente Decreto será la Dirección de Agricultura y Ganadería.

2.– Las indemnizaciones serán concedidas a todos los solicitantes que cumplan con lo dispuesto en el presente Decreto y en sus normas de desarrollo y ejecución, conforme al orden de presentación de las solicitudes. En el caso de agotamiento de los fondos destinados a este fin, se paralizará la concesión de las indemnizaciones durante ese ejercicio. De dicha circunstancia se dará publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural.

3.– Aquellas solicitudes que, pese a reunir los requisitos exigidos en el presente Decreto, no pudieran ser atendidas y por lo tanto hubiesen sido denegadas por haberse agotado la consignación presupuestaria destinada a este fin serán atendidas en el ejercicio siguiente y con prioridad respecto a las solicitudes presentadas en dicho ejercicio, si bien deberá presentarse una nueva solicitud de indemnización. No obstante, no se-

beharko dute. Dena den, ez da beharrezkoa izango 5. artikulua 3. paragrafoan eskatutako dokumentazioa berriz ere aurkeztea, lehen eskaera egiterakoan dokumentazio hori aurkeztu bazen.

7. artikulua.— Ebazpena.

1.— Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari dagokio kalte-ordainak jasotzeko eskaerak emango diren ala ukatuko diren ebaztea.

2.— Ebazpena, gehienez jota, sei hilabeteko apean eman eta jakinaraziko da, eskaera aurkeztu zen egunetik hasita. Epe hori igarota, esanbidez ebazpenik egon ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu behar dute interesatuek, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. artikuluan.

3.— Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak kalte-ordainak eman edo ukatzeko emandako ebazpenaren aurka interesatuek gora jotzeko errekurtsua aurkeztuz, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpen horren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo, bestela, hiru hilabeteko epean, administrazioaren isiltasunak ondorioak izan dituen egunaren biharamunetik hasita, betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114 eta 115. artikuluetan. Ezarritakoaren arabera.

4.— Urtero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da kalte-ordain hauek jasoko dituzten onuradunen zerrenda, bakoitzari emango zaion kopurua ondoan zehaztuta dagoela.

5.— Dekretu honek arautzen dituen kalte-ordainak onuradunei esleitu, eta, hala badagokio, ordaindu aurretik, buruturik egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek antzeko laguntzak edo diru-laguntzak onuradun horiei itzularazteko edo haien zioz zehapenak ezartzeko oraindik izapidetze-fasean dauden prozedura guztiak.

8. artikulua.— Ordainketa.

Ordainketa bakar bat eginda emango da kalte-ordaina, hamabost eguneko epea igaro ondoren, kalte-ordaina onartu (edo kalte-ordaina onartzeko gehienez jota emandako epea igaro) eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

9. artikulua.— Onuradunaren betebeharrak.

Dekretu honetan araututako kalte-ordainen onuradunek, egoera edozein dela ere, honako betekizun hauek izango dituzte:

a) Emandako kalte-ordaina onartu behar dute. Ildo horretan, hamabost eguneko epean, kalte-ordaina eman izanaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, onuradunek berariaz eta idatziz laguntzari uko egi-

rá necesario aportar nuevamente la documentación exigida en el párrafo tercero del artículo 5 que se hubiese presentado con la primera solicitud.

Artículo 7.— Resolución.

1.— Corresponde al Director/a de Agricultura y Ganadería la resolución de la concesión o denegación de las solicitudes de indemnización.

2.— La Resolución se dictará y notificará en el plazo máximo de seis meses desde la presentación de la solicitud, transcurrido el cual sin resolución expresa, los interesados podrán entender estimadas sus solicitudes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 43 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.— Contra la Resolución del Director/a de Agricultura y Ganadería de concesión o denegación de la indemnización podrá el interesado interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la recepción de la notificación de dicha Resolución, o en el plazo de tres meses a partir del día siguiente a aquel en que se produzcan los efectos del silencio administrativo, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.— Anualmente se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco una relación de los beneficiarios de estas indemnizaciones con los importes correspondientes a las mismas.

5.— La concesión y, en su caso, el pago a los beneficiarios de las indemnizaciones previstas en el presente Decreto quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 8.— Pago.

El pago de la indemnización será único y se realizará una vez haya transcurrido el plazo de quince días a contar desde el siguiente al de la aceptación o al de finalización del plazo máximo para aceptar la indemnización.

Artículo 9.— Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de la indemnización regulada en el presente Decreto deberán cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la indemnización concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días a contar desde el siguiente al de la notificación de la concesión de la indemnización, el beneficiario no renuncia expresamen-

ten ez badiote, kalte-ordaina onartu egin dutela ulertuko da.

b) kalte-ordaina emateko oinarri den egoeran egon behar dute onuradunek, eta kalte-ordaina jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela justifikatu behar diote Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

c) Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak egin behar dituen egiaztapen-jardunak oztoporik jarri gabe onartu behar dituzte onuradunek, eta, horrez gain, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edota Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, dekretu honi jarraituz emandako kalte-ordainak direla-eta, beren kontrol-lan horretan eskatzen dieten informazio guztia eman behar diete.

d) Kalte-ordaina emateko orduan kontuan hartu ziren egoera edo gorabehera objektibo nahiz subjektiboetan edozelako aldaketak egonez gero, horren berri jakinarazi behar diote onuradunek Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

e) Behien entzefalopatia espongiformearen (BSE) arloan aplikagarri diren arauak eta animalien osasun-arloan indarrean diren gainerako araudiak bete behar dituzte onuradunek.

10. artikulua.— Laguntza emateko baldintzetan aldaketak gertatzea.

Kalte-ordainak emateko orduan kontuan hartu ziren baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak kalte-ordainak emateko ebazpena aldatu ahal izango du, betiere, dekretu honetan eta dekretua garatzeko arauetan kalte-ordainaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira. Halaxe izango da, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako testu bateginaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antola Arauei buruzko Legeko 49.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

11. artikulua.— Baldintzak ez betetzea eta dirua itzultzea.

1.— Kalte-ordainaren onuradunak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera, jasota dituen zenbatekoak itzuli beharko ditu, baita laguntza ordaindu zenetik legez dagozkion interesak ere, baldin eta honako dekretu honetan, dekretua garatzeko aginduetan edo laguntza emateko ebazpenean zein ezar daitezkeen gainontzeko arauetan finkatutako baldintzetakoren bat edo betekizunetakoren bat betetzen ez badu, edo, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu bateginaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan ezarritako ez-betetze egoeretakoren batean sartzen bada.

te y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Encontrarse en la situación que fundamenta la concesión de la indemnización y justificar ante el Departamento de Agricultura y Pesca el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinan la concesión de la misma.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el Departamento de Agricultura y Pesca, y facilitar a este Departamento, a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de control respecto de las indemnizaciones concedidas con arreglo a este Decreto.

d) Comunicar al Departamento de Agricultura y Pesca la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la indemnización.

e) Cumplir la normativa aplicable en materia de encefalopatía espongiforme bovina (EEB) y demás normativa vigente en materia de sanidad animal.

Artículo 10.— Alteración de las condiciones de las ayudas.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la indemnización, podrá dar lugar, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.12 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco según el texto refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, a la modificación de la Resolución de concesión de la indemnización por parte de la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en este Decreto y en sus normas de desarrollo para poder ser beneficiario de la misma.

Artículo 11.— Incumplimientos y reintegros.

1.— En caso de que los beneficiarios de la indemnización incurriesen en los supuestos de incumplimiento establecidos en el artículo 53.1 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco según el texto refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, de 11 de noviembre, o incumpliesen alguno de los requisitos y obligaciones establecidos en el presente Decreto, así como en las Órdenes que lo desarrollen o en la Resolución de concesión, y demás normas aplicables, vendrán obligados a reintegrar las cantidades percibidas más los intereses legales que resulten de aplicación desde el momento del pago de la ayuda, de conformidad con lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

2.– Dirua itzultzeko espedienteak Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak hasi, tramitatu eta ebatzi-ko ditu, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan oro har ezarritako prozeduraren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Europar Batasuneko araudiak, animalien gaixotasu-
nen aurkako jardun-esparruan, animaliak galtzearen
kalte-ordainak eman behar direla ezartzen badu, eta kal-
te-ordain hori ordaintzea, egitura-dekretuaren arabera,
Nekazaritza eta Arrantza Sailari badagokio, orduan, Ne-
kazaritza eta Arrantza sailburuak kalte-ordainak emate-
ko baldintzak ezarri ahal izango ditu, nekazaritza-ar-
loan estatuak laguntzak emateari buruzko Europako ja-
rraibideen 11.4 idatz-zatian adierazitakoa oinarri har-
tuta (2000ko otsailaren 1eko EEAO-C 28/2, 2000/C
28/02 jarraibideak).

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lebena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekon-
tu Orokorretako aurrekontu-kredituan 2004ko ekital-
dirako erabilgarri dagoen kopurua Hamar mila eta zor-
tziehun (10.800) eurokoa da.

Bigarrena.– Kalte-ordainak zenbatekoak izango di-
ren kalkulaterakoan erabiliko den baremoa ondoren-
go haxe izango da 2004ko ekitaldiari dagokionez:

2.– Los expedientes de reintegro serán iniciados, tra-
mitados y resueltos por el Director/a de Agricultura y
Ganadería de acuerdo con el procedimiento estableci-
do con carácter general en el Decreto Legislativo
1/1997, de 11 de noviembre y en el Decreto 698/1991,
de 17 de diciembre.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Siempre y cuando la normativa comunitaria establez-
ca la obligación de compensar la pérdida de animales
en el marco de la lucha contra enfermedades animales
y dicha compensación le corresponda al Departamento
de Agricultura y Pesca de acuerdo con su Decreto de
estructura, el Consejero/a de Agricultura y Pesca, me-
diante Orden, podrá establecer las condiciones de di-
cha compensación, en el marco del Apartado 11.4 de
las Directrices comunitarias sobre ayudas estatales al
sector agrario (D.O.C.E. C 28/2 de 1 de febrero de
2000, Directrices 2000/C 28/02).

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– El crédito presupuestario disponible en
los Presupuestos Generales de la C.A.P.V. para el ejer-
cicio 2004 es de Diez mil ochocientos (10.800) euros.

Segunda.– El baremo de indemnización que será de
aplicación para el cálculo del importe de la misma pa-
ra el ejercicio 2004 será el que se establece a continua-
ción:

SAILKAPENA

KALTE-ORDAINA euro/kg (egurastuta)

A atala (24 hiletik beherako arrak, zikiratu gabeak)	3,95 euro
E atala (emeak, umerik egin gabeak)	4,26 euro
C eta B atala (idiak eta zezenak)	2,51 euro
DU eta DR atala (emeak, umea egindakoak)	3,23 euro
DO atala (emeak, umea egindakoak)	2,82 euro
DP atala (emeak, umea egindakoak)	1,49 euro
C atala (24 hiletik beherako arrak, zikiratuak)	4,05 euro

CATEGORÍA

INDEMNIZACIÓN euros/kg tras oreo

Categoría A (machos menores de 24 meses no castrados)	3,95 euros
Categoría E (hembras no paridas)	4,26 euros
Categoría C y B (bueyes y toros)	2,51 euros
Categoría DU y DR (hembras paridas)	3,23 euros
Categoría DO (hembras paridas)	2,82 euros
Categoría DP (hembras paridas)	1,49 euros
Categoría C (machos menores de 24 meses castrados)	4,05 euros

Hirugarrena.— Baimendutako transformazio-industria batera eramateko (gero han suntsitu dezaten), edo suntsipen-industria batera eramateko, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera dekretu hau argitaratu bitartean konfiskatu eta tindatu diren kanalen jabeek hiru hilabeteko epea izango dute, dekretua argitaratzen den egunetik hasita, eskabideak aurkezteko.

Laugarrena.— Ondorengo baremo hau erabiliko da 2003. urtean konfiskatu eta tindatu diren kanalak direla-eta emango diren kalte-ordainak zehazteko, betiere, 3. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoa aintzat hartuta, eta Hirugarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoa betetzearren:

Tercera.— Los propietarios de las canales que hayan sido decomisadas y tintadas con el objeto de enviarlas a una industria de transformación autorizada, para su posterior destrucción, o a una industria de eliminación autorizada, desde el 1 de enero de 2003 hasta la fecha de publicación del presente Decreto, tendrán un plazo de tres meses a partir de su publicación para presentar sus solicitudes.

Cuarta.— Teniendo en cuenta lo establecido en el párrafo 4 del artículo 3 y a los efectos de lo dispuesto en la Disposición Transitoria Tercera, el baremo de indemnización que será de aplicación a las canales decomisadas y tintadas durante el año 2003 será el que se establece a continuación:

SAILKAPENA	KALTE-ORDAINA euro/kg (egurastuta)
A atala (24 hiletik beherako arrak, zikiratu gabeak)	3,70 euro
E atala (emeak, umerik egin gabeak)	4,00 euro
C eta B atala (idiak eta zezenak)	2,30 euro
DU eta DR atala (emeak, umea egindakoak)	3,00 euro
DO atala (emeak, umea egindakoak)	2,60 euro
DP atala (emeak, umea egindakoak)	1,30 euro
C atala (24 hiletik beherako arrak, zikiratuak)	3,80 euro

CATEGORÍA	INDEMNIZACIÓN euros/kg tras oreo
<i>Categoría A (machos menores de 24 meses no castrados)</i>	3,70 euros
<i>Categoría E (hembras no paridas)</i>	4,00 euros
<i>Categoría C y B (bueyes y toros)</i>	2,30 euros
<i>Categoría DU y DR (hembras paridas)</i>	3,00 euros
<i>Categoría DO (hembras paridas)</i>	2,60 euros
<i>Categoría DP (hembras paridas)</i>	1,30 euros
<i>Categoría C (machos menores de 24 meses castrados)</i>	3,80 euros

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko martxoaren 2an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,

GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de marzo de 2004.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,

GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

I. ERANSKINA, MARTXOAREN 2KO 42/2004 DEKRETUARENA; DEKRETU HORREN BIDEZ, BEHIEN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEA (BSE) ANTZEMATEKO TEST AZKARRA EGINDAKOAN POSITIBO EMAN DUEN KANALAREN HILKETA-KATE BEREKO AURRE-AURREKO KANALA, ONDORENGO BIAK ETA HORTIK DATOZEN AZPI-PRODUKTUAK GALTZEARREN EMANGO DIREN KALTE-ORDAINAK EZARTZEN DIRA.

KALTE-ORDAINA ESKATZEKO INPRIMAKIA

ERREGISTROKO SARRERA-EGUNA:

ESKAERA-EGILEA:jn/and.
 NAN ZK.:
 SOZIETATEAREN IZENA:
 (eskabide-egilea sozietatearen ordezkaria bada)NEKAZARITZAKO ELIKAGAI IN-
 DUSTRIEN ERREGISTROKO INSKRIPZIO-ZK.:
 IFZ/IFK:.....
 NEKAZARITZA-USTIATEGIAREN IZENA:
 NEKAZARITZA-USTIATEGIEN ERREGISTROKO INSKRIPZIO-ZK.:..... IFZ/IFK:
 HELBIDEA:
 UDALERRIA: LURRALDEA:.....
 P.K.: TELEFONOA:
 FAX ZK.: E-MAIL:

ESKAERA:ARENKO .../2004 DEKRETUAN EZARRITAKO KALTE-ORDAINA JASO NAHI DU
 ESKAERA-EGILEAK; DEKRETU HORREN BIDEZ EZARTZEN BAITIRA BEHIEN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFOR-
 MEA (BSE) ANTZEMATEKO TEST AZKARRA EGINDAKOAN POSITIBO EMAN DUEN KANALAREN HILKETA-
 KATE BEREKO AURRE-AURREKO KANALA, ONDORENGO BIAK ETA HORTIK DATOZEN AZPI-PRODUKTUAK
 GALTZEARREN EMANGO DIREN KALTE-ORDAINAK.

LEKUA:(e)n

EGUNA: 200.....aren(e)an.

SINADURA (eskaera-egilearena/legezko ordezkariarena)

Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz, automatizatutako fitxategi batean jaso ahal izango dira datuak, kudeaketa hobea izan dadin; informazio hori Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak izango du erabilgarri. Eskaera-egileak berariaz baimena ematen du datu pertsonal horiek osorik zein zati batean erabili ahal izan daitezen, betiere, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2002ko abenduaren 16ko Aginduan datuen erabileraz eta helburuez ezartzen denaren arabera, agindu horren bitartez arautu baitziren Nekazaritza eta Arrantza Sailak kudeatzen dituen Norberaren Datuei buruzko fitxategi automatizatuak (gerora, 2003ko uztailaren 14ko Aginduak eraldatu zuen aurrekoa). Interesatuek eskubidea dute beren datuak ikusteko, zuzentzeko, baliogabetzeko edo aurkatzeko, eta eskubide hori baliatu lezakete Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Orokorrerako Zuzendaritzan, horixe baita datuen tratamenduaz arduratzen dena (helbidea: Donostia- San Sebastian kalea 1, 01010; Vitoria- Gasteiz).

ANEXO I AL DECRETO 42/2004, DE 2 DE MARZO, POR EL QUE SE ESTABLECE UNA INDEMNIZACIÓN POR LA CANAL INMEDIATAMENTE ANTERIOR Y LAS DOS INMEDIATAMENTE POSTERIORES A LA QUE DÉ POSITIVO AL TEST RÁPIDO DE EEB EN LA MISMA CADENA DE SACRIFICIO, ASÍ COMO POR SUS SUBPRODUCTOS.

IMPRESO DE SOLICITUD DE INDEMNIZACIÓN

FECHA ENTRADA REGISTRO:

D./DÑA.: CON D.N.I. N.º EN REPRESENTACIÓN DE:
RAZÓN SOCIAL:NÚMERO DE INSCRIPCIÓN EN REGISTRO
DE INDUSTRIAS AGROALIMENTARIAS:N.I.F./C.I.F.:.....
NOMBRE DE LA EXPLOTACIÓN AGRARIA:.....
NÚMERO DE INSCRIPCIÓN EN REGISTRO DE EXPLOTACIONES AGRARIAS:
N.I.F./C.I.F.:.....DIRECCIÓN:.....
MUNICIPIO:.....TERRITORIO:.....
C.P.:TELÉFONO:.....
FAX:..... E-MAIL:.....

SOLICITA ACOGERSE A LA INDEMNIZACIÓN ESTABLECIDA EN EL DECRETO ____/2004, DE ____ DE _____, POR EL QUE SE ESTABLECE UNA INDEMNIZACIÓN POR LA CANAL INMEDIATAMENTE ANTERIOR Y LAS DOS INMEDIATAMENTE POSTERIORES A LA QUE DÉ POSITIVO AL TEST RÁPIDO DE EEB EN LA MISMA CADENA DE SACRIFICIO, ASÍ COMO POR SUS SUBPRODUCTOS.

EN A DE DE

FIRMA DEL SOLICITANTE/REPRESENTANTE LEGAL:

De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal los datos podrán ser registrados en un fichero automatizado, con la finalidad de realizar una mejor gestión y siendo destinatario de la información el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. El solicitante otorga su consentimiento expreso a la cesión total o parcial de los datos personales según lo establecido a los usos y fines en la Orden de 16 de diciembre de 2002, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se regulan los ficheros automatizados de Datos de Carácter Personal gestionados por el Departamento de Agricultura y Pesca, modificada por Orden de 14 de julio de 2003. Los interesados podrán ejercitar el derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco como responsable del tratamiento y con domicilio en C/ Donostia- San Sebastian,1, 01010 en Vitoria- Gasteiz.

II. ERANSKINA, MARTXOAREN 2KO 42/2004 DEKRETUARENA; DEKRETU HORREN BIDEZ, BEHIEN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEA (BSE) ANTZEMATEKO TEST AZKARRA EGINDAKOAN POSITIBO EMAN DUEN KANALAREN HILKETA-KATE BEREKO AURRE-AURREKO KANALA, ONDORENGO BIAK ETA HORTIK DATOZEN AZPI-PRODUKTUAK GALTZEARREN EMANGO DIREN KALTE-ORDAINAK EZARTZEN DIRA.

HIRUGARRENEN KODEAN ALTA EMATEKO INPRIMAKI OFIZIALA

ANEXO II AL DECRETO 42/2004, DE 2 DE MARZO, POR EL QUE SE ESTABLECE UNA INDEMNIZACIÓN POR LA CANAL INMEDIATAMENTE ANTERIOR Y LAS DOS INMEDIATAMENTE POSTERIORES A LA QUE DÉ POSITIVO AL TEST RÁPIDO DE EEB EN LA MISMA CADENA DE SACRIFICIO. ASÍ COMO POR SUS SUBPRODUCTOS.

IMPRESO OFICIAL DE ALTA EN EL CÓDIGO DE TERCERO

[illegible]